

Elevated Projection

**Edwin van der Heide Azkuna Zentroko Iberdrola
Espazioan**



PRENTSA DOSIERRA

- Sarrera:
- Artista: Edwin van der Heide
- Obra: *Elevated Projection*
- Espazioa: Kulturen Ataria

Egunak eta orduak

Martxoaren 24tik apirilaren 2ra, 20:00etatik aurrera.

Tokia

Kulturen Ataria. Azkuna Zentroa, Bilbo

Sarrera

Sarrera dohainik

Web-orria

www.iberdrola-arte.es

Facebook

[Iberdrola](#)

Twitter

[@iberdrola](#)

Instagram

[Iberdrolagrupo](#)

Informazio gehiago izateko,

Itziar Ijalba Izaguirre

iijalba@azkunazentroa.eus

Teléfono: (+34) 94 612 43 15

www.azkunazentroa.eus

Verónica Serrano Zafra

vserrano@iberdrola.es

Teléfono: (+34) 608 018 852

www.iberdrola.com

Sarrera:

Martxoaren 24tik apirilaren 2ra, Edwin van der Heide artistaren *Elevated Projection* ikus-entzunezko konposizioak eraldatuko du arratsaldero Azkuna Zentroko Kulturen Ataria, Iberdrola Espazioan.

Elevated Projection konposizioan argia, espazioaren arkitektura eta soinua elkartzen dira, eta egitura eta esperientzia berriak sortzen dituzte espazio horren barruan. Hainbat laserren eta ke-geruza fin baten bidez, formak sortuko dira, eta argia ukitu egin ahal izango da; inguru aldakorra eta hiru dimentsiokoa izango dute inguruan bertaratutakoek.

Pieza artistiko hau Laser Sound Performance (LSP) seriearen zati bat da. Obra horien bidez, Edwin van der Heide artistak soinuaren eta hiru dimentsioko irudiaren arteko lotura aztertzen du, laser bidezko proiektzioak erabiliz. Artistak argiaren eta soinuaren arteko erlazio konplexuak sortzen ditu espazioen barruan. Obrak ezaugarri korporalak ditu, ia ukitu daitezkeenak, eta ikusleen begien aurrean garatzen da.

Edwin van der Heiden-en obra hau Azkuna Zentroan jartzea Iberdrolak kulturaren alde egindako apustu handiaren adierazgarria da, batez ere abangoardiako artearen alde egin duen apustuarena; horren adibide dugu Salamancako Luz y Vanguardias jaialdiari eskainitako babesa ere; jaialdi horretan izan zen 2016an holandar artista hau obra batekin.

Artista:

Edwin van der Heide (Hilversum, Holanda, 1970)

Hagako Institute for Sonology at the Royal Conservatory-n graduatua 1992an, Edwin van der Heide artista multimedia dugu, konpositorea eta soinuaren, espazioaren eta elkarreraginaren arloko ikertzailea. Rotterdamen (Herbehereak) bizi da eta bertan egiten du lana.



Musika elektronikoan hasi zen, eta bere obra inguru parte-hartzaileetako instalazioetara hedatu zen; ikus-entzuleak pieza bakoitzaren erdian kokatzen dira- eta eragin-trukea izateko gonbita hartzen dute, obran modu aktiboan aritzeko eta identifikatzeko.

Hainbat museotan erakutsi du bere lana: Stedelijk Museum (Amsterdam), National Art Museum of China (Pekin) eta San Francisco Museum of Modern Art. Era berean, nazioarteko jaialdietan egin ditu proiektuak, bai eta instalazio iraunkorrak ere gune publikoetan, esaterako, Belgika, Rotterdam, Linz, Tokio, Beijing, Berlin, Bartzelona edo Brasilen. 1995az geroztik, Royal

Conservatory-ko ArtScience eta Soinu eta Irudi Fakultateko irakaslea da, eta Hagako Royal Arts Academy-koa ere bai (Holanda).

Van der Heide irakasle laguntzailea da Leidengo Unibertsitatean, (LIACS/Media Technology MSc programme) eta Spatial Interaction Lab laborategiko burua Hagako Royal Conservatoire and Arts Academy-ren ArtScience Interfaculty-n. Berlingo Technische Universität-eko irakasle gonbidatua izan zen (2009), Edgar Varese-k gonbidatu ondoren. 2009an Witteveen+Bos Art+Technology Award irabazi zuen bere obra guztiagatik, eta Frantziako Le Fresnoy, studio des arts contemporain-eko irakasle gonbidatua izan zen 2011-2012 ikasturtean.

Haren curriculum zabala eta banaka eta taldean egindako erakusketa guztiak orri hauetan laburtzea ezinezkoa litzatekeenez, haren webgunera jo dezakezue: www.evdh.net

Obra

Elevated Projection



Azkuna Zentroko Iberdrola Espazioan aurkeztutako obra, *Elevated Projection*, Laser Sound Performance (LSP) seriekoa da. LSP ikerketa-lerro bat da, eta soinuaren eta hiru dimentsioko irudiaren arteko harremana aztertzen du proiektzio laserraren bidez.

1815ean, Nathaniel Bowditch iparramerikar matematikariak patroï bisualak ekoizteko modu bat deskribatu zuen, bi uhin sinusoidal erabiliz; bata puntu baten mugimendu horizontalerako zen eta bestea mugimendu bertikalerako. Patroïen forma uhin horien frekuentziaren eta fasearen arteko erlazioaren mende dago. Patroï horiei Lissajous irudiak edo Bowditch kurbak esaten zaie.

Soinuaren eta irudiaren arteko harremanak garatzeko balizko abiapuntutzat hartu du LSPk Bowditchen lana. Uhin sinusoidalak tonu puruak (entzun daitezkeenak) sortzeko ere erabili daitezkeenez, soinuaren eta irudiaren arteko zuzeneko harremana eraiki daiteke. Soinu-, afinazio- eta fase-aldaketetako frekuentzia-ratioak bisualean zuzenean islatzen dira.

Teorikoki soinu guztiak hainbat uhin sinusoidalen batura legeaz ikus daitezkeen arren, musika oro har konplexuegia izaten da ikus daitezkeen patroï interesgarriak ekoizteko. LSPren ikerketaren xedea da ikurrak osatzea, eta, ikur horiek musika-egiturazko kalitatea izateaz gain, denboran oinarritutako ikus-egiturazko kalitatea ere izatea. Soinuaren eta irudiaren arteko harremanak dela performance formatuan dela instalazioetan erabiltzen dira.

Audioa eta bideoa konbinatzen direnean, soinuaren espazio-arloko pertzepzioa mugatu egiten da gehienetan, irudiak bi dimentsioko izaera duelako eta soinuak hiru dimentsiokoak. Baina laserrei esker, hiru dimentsioko giro aldakorrek sortu daitezke ikus-entzuleen inguruan.

Elevated Projection honetan, irudia sortzeko laser proiektzioak egiten dira ke- edo laino-geruza fin batean. Irudia eta soinua iturri beretik sortzen dira, ordenagailuan

denbora errealean sortuta. Horren ondorioz, irudiak eta soinuak garrantzi bera dute ikuspegia etengabe aldatu behar duen ikus-entzulearengan.

Espazioa

Azkuna Zentroaren Kulturen Ataria.

Kulturen Ataria Azkuna Zentroaren bihotza da, eta gunerik handiena ere bai, 610 m²-ko azalera eta 16 metroko garaierarekin. Gainera, toki honetan daude ikusgai 43 zutabeak, zentroa eratzen duten hiru eraikinen euskarri. Azkuna Zentroko Kulturen Atarian sartzean, gizateriaren bilakaeran eragina izan duen aniztasun kultural eta geografiko horretan ari gara barneratzen. Hiru eraikinei eusten dieten 43 zutabeak gizakiak historian barrena zeharkatu dituen milioika haberen, eta ezin konta ahala kultura, arkitektura, gerra eta erlijioaren sinbolo dira.

Zutabeak egiteko hautatutako materialak ikustean, ibilbide bat egin dezakegu lehengaien historian barrena. Lehenik, materialik zaharrenak hautatu ziren, adibidez, marmola, adreilua, zura eta brontzea. Gero, zementua eta altzairua, garai berrien lekuko gisa. Azkenik, aspalditik erabili arren ia ezezagunak diren bi elementu erabiltzea proposatu zen: Lecceko harria eta terrakota beiratzatua.

Ibilbidean ez dago aurrez ezarritako hurrenkerarik, baina, hala ere, batzuen esanetan, Eguzkiaren Pantaila da bisitaren abiaburua, espazioaren goialdean kokatutakoa. Salbuespen gisa, Edwin van der Heide-ren obra proiektatu bitartean, itzali egingo da. Bakoitzak bere ikuspegia izan dezake, bere ibilbidea sortu, istorioak asmatzeko duen gaitasuna esnaraziz.

Eskulturak antolatzeke moduan irizpide honi baino ez zaio jarraitu: antzeko materiala edo estiloa duten zutabeak elkarrekin ez jartzea, bakoitzak dagokion garrantzia eta nabarmentasuna izan ditzan. Ibilbide honi esker hausnar dezakegu zenbateko garrantzia duen arteak gure bizitzetan, horretaz jabetzen ez bagara ere.

Eranskina

Erakusketa eta Festibal gailenak:

- Sonar Festival, Barcelona, Spain, 2002
- Ars Electronica Festival, Linz, Austria, 2004
- Audio Frames, Lille (cultural capital of europe), France, 2004
- Nuit Blanche, Paris, France, 2005
- 7th Elektra Festival, Montreal, Canada, 2006
- Sonambiente 2006, Tesla, Berlin, Germany, 2006
- Code Blue - Beijing International New Media Arts Festival, Beijing, China, 2006
- DAF Tokyo 2006 (Digital Art Festival Tokyo), Panasonic Centre, Tokyo, Japan,
- Centrum Kunstlicht in de Kunst / Centre Artificial Light in Art, Eindhoven, The Netherlands, 2006-2007
- Estuaire 2007, bianual festival from Nantes to Saint Nazaire, base sous-marine, Alveole 14, LIFE, Saint Nazaire, France, 2007
- Art Centre Nabi, Seoul, Korea, 2007
- Stedelijk Museum, Amsterdam, The Netherlands, 2008
- Synthetic Times, National Art Museum of China, Beijing, China, 2008
- SMAK, Ghent, Belgium, 2008
- Tabakalera, San Sebastian, Spain, 2009
- Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofia, Madrid, Spain, 2009
- Club Transmediale, Berlin, Germany, 2011
- NAMOC, Beijing, China, 2011
- Le Fresnoy, Tourcoing, France, 2012
- MUTEK, Montreal, Canada, 2012
- ZKM - Zentrum für Kunst und Medientechnologie, Karlsruhe, Germany, 2012
- FACT, Liverpool, UK, 2013
- Shanghai Electronic Music Week, Shanghai, China – National Museum of Modern and Contemporary Art, Taipei, Taiwan, 2013
- Mies van der Rohe Pavilion / Sonar Festival, Barcelona, Spain, 2014
- SKAN II, Skanu Mezs (European Capital of Culture), Riga, Latvia, 2014
- Ground Moscow, Moscow, Russia, 2015
- Art Basel, Parours Night, 2015
- Spring Attitude, MAXXI Museum, Rome, Italy, 2015
- Schwingungen – Schwebungen, University Library Bonn / Beethoven Foundation, Bonn, Germany, 2015-2016
- Festival de Luz y Vanguardias, Salamanca, Spain, 2016
- Radio Forest - Nahal Ein Kerem, Jersusalem, Israel 2016

Sari gailenak:

- 1st price Art Future, Taipei, Taiwan, 2000
- Honorary mention, Transmediale, Berlin, 2001
- Honorary mention, interactive art, Ars Electronica Festival, Linz, Austria, 2001
- 1st price, new media, Split Filmfestival, Split, Croatia, 2006
- Witteveen en Bos kunst en techniek oevreprijs, 2009
- Best Practice Rozet, Virtueel Platform, 2012
- Sound Artist of the City of Bonn, Beethoven Foundation Bonn, 2015